



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

**KUTSADURA AKUSTIKOAREN
KONTRAKO EKINTZA-PLANAREN
ONESPENARI BURUZKO ESPEDIENTEA**

- Onarpena: 2012.07.17 Osoko Bilkura.

KUTSADURA AKUSTIKOAREN KONTRAKO EKINTZA-PLANA

PLAN DE ACCIÓN CONTRA LA CONTAMINACIÓN ACÚSTICA

DURANGO

2008ko irailaren 16a

KUTSADURA AKUSTIKOAREN KONTRAKO EKINTZA-PLANA

1.1. Ekintza-plana

Deskribapena: **emisioen kontrola.**

EGINGO DIREN EKINTZAK

- Hirigunean azterketa akustiko zehatza egitea, eguneko eta gaueko soinu-maila zehazteko, legediaren arabera.
- Ostalaritzako lokaletan sonografoak ezartzea. Hiriguneari arreta berezia eskaintzea.
- Zaraten arabera udal-eremuak bereiztea, etorkizuneko hirigintza-plangintzetarako
- Garraio publikoa hobetzea.
- Hirigintza-planean eta diseinuan arlo akustikoa jasotzea da udalean zarata gutxitzeko ekintza nagusietako bat.
- Udal-lanetan zarata prebenitzeko irizpideak ezartzea

SENTSIBILIZAZIO ETA KOMUNIKAZIO JARDUERAK

- Herritarrei zaratari buruzko informazioa ematea.
- Udalaren web orrian kutsadura akustikoari buruzko informazioa jasotzea.

PARTE HARTUKO DUTEN ERAGILEAK

Udala, Aisialdigunea (Tabernak)

DENBORA: 2 urte.

Sinergiak. Beste ekintza edo proiektu batzuekin harremana.

PLANGINTZA

MUGIKORTASUNA

WEB ORRIA

Finantzabideak.

PROPOSATURIKO ADIERAZLEA: Adierazlea: airearen kalitate parametroak betetzea. Adierazle hori Interneteko sistemaren bitartez kontrolatzea. DATUAK: IMAE	Neurketa-unitatea: ezarritako mugak zenbat aldiz gainditzen diren. Lortu nahi den joera: murriztea.
--	---

1.2. Ekintza-plana

Deskribapena: **aisialdiko ekintzen zarata.**

EGINGO DIREN EKINTZAK

- Ostalaritzako jardueren funtzionamenduan kontrol zorrotzagoa (batez ere martxan daudenean atea eta leihoak itxita izatea eta lokalak ixteko ordutegia errespetatzea).
- Ostalarientzako informazio kanpaina egitea, kutsadura akustikoa murrizteko hartu ditzaketen neurrien berri emateko (gauez garagardo upelik arrastaka ez eramatea, aulki eta mahaiei gomazko takoak jartzea, ahalik eta zarata gutxien sortzen duten kafe makinak erabiltzea eta horiek zuzen erabiltzea, etab).
- Udalak zorrotzago kontrolatuko ditu aisialdiko jarduerak sortzen duten soinua (ikus 1.1 Ekintza-Plana)
- Plangintzaren alaketetan edo plangintza berrian lokalen langileek zaratak prebenitzeko neurriak ezartzea.
- Jarduera berriak eta lehendik daudenak isolatzeko araudi zehatza betearaztea.
- Udal-araudia Europan eta nazioan indarrean dagoen legediari egokitzea. Zarata eta Dardarei buruzko Udal Ordenantza bat egitea eta onartzea (obrak eta bestelakoak arautzeko).
- Akustikoki sentikorrak diren eremuetan zaratak gutxitzeko neurriak aztertzea, eraikinen isolamendua hobetzeko diru-laguntzak emanez (leihoak, itxiturak...)

FOROKO OHARRAK:

- *Zarata buruzko sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainei buruz ere eztabaidatu da taldean, gizaratean eraginik duten ala ez jakiteko. Batzuek diote ez dutela ezertarako balio, eta beste batzuek baietz. Ildo horretan, Durangon egin berri den kanpaina bat aipatu dute. Kanpaina horretan Udalak, auzokideen elkarteak eta ostalariek hartu zuten parte, hau da, arazo honetan zuzenean parte hartuko duten eragileak. Taldeko askok zalantzan jarri dute herritarrek kontzientzia har dezaten ondorioz izan duen kanpainak. Era berean, gaueko aisialdirako konponbideez eta horiek zaratan duten eraginaz hitz egin dute. Nolako zailtasunak dauden aipatu da; izan ere, zaratarik ez sortzeko neurriak hartu diren bezala, ostalaritzako lokaletan ere neurri zuzentzaileak har behar diren ere, lokaletatik ateratzen den jendea da arazoa, kalean elkartzen delako. Horrenbestez, zaila da arazo hori epe motzean konpontzea.*

PARTE HARTUKO DUTEN ERAGILEAK

Udala, Ostalariak

DENBORA: 2 urte.

Sinergiak. Beste ekintza edo proiektu batzuekin harremana.

Finantzabideak.

PROPOSATURIKO ADIERAZLEA:

Adierazlea:
Zarata maila orokorrak

Datuen iturburua:
Zaraten mapa eta eguneraketak

Adierazlea:
Salaketen kontrola

Neurketa-unitatea:
Dezibelak (A)

Lortu nahi den joera:
Murriztea

Lortu nahi den joera:
Murriztea

1.3. Ekintza-plana

Deskribapena: **ibilgailuen zarata**

EGINGO DIREN EKINTZAK

- Udalean, ahalik eta eremu gehienetan, abiadura maila murriztea.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Errepide Sailari pantaila akustikoak eskatzea, kutsadura akustiko handiko eremuetarako
- Udaleko kale nagusietan lorategi bereziak eta zuhaitzak jartzea, ibilgailuen gurgpilek sortzen duten zarata xurgatzeko.
- Lurzoruaren kalitatea hobetzea zaratak eta dardarak ondoen xurgatzen dituztenak erabiliz eta lur zahartua aldatuz.
- Ahalik eta kale gehien oinezkoentzat egokitzea eta halakorik egin ezin denean, espaloiak zabaltzea.
- Astero motoek sortutako zarata kontrolatzeko udal kanpaina egitea. Udaltzainak prestatzea
- Zaratak osasunean eragiten dituen kalteez sentsibilizatzeko eta kontzientziazteko, herritarrentzako kanpaina orokorra.
- Zarata murrizteko neurrien berri emateko, herritarrei banatzeko liburuxkak egitea.
- Hirigunetik kanpo disuasio-aparkalekuak gehitzea
- AHTren Proiektuaren eta funtzionamenduaren jarraipena egitea, jarraipen-neurrien kanpainaren baten bidez

FOROKO OHARRAK:

- *Aramotzen eta beste hainbat anizotan, kamioiek zarata eta zikinkeria handia sortzen dute fundiziorako bidean, eta beharrezkoa da nolako zarata sortzen duten eta abiadura egiaztatzea.*
- *Fundicex-Sabeco-Tabirako biribilguneko etxeetan pantailak jartzea proposatu da.*
- *Bestalde, mugikortasunak eta trafikoak sortzen dituzten arazoak ere landu dira, eta ildo borretan, oso garrantzitsutzat jo da eremu gehiago oinezkoentzat egitea, eta ibilgailuen erabilera murriztea.*
- *Beste hainbat herritan izandako esperientziei buruz ere hitz egin dute taldean. Mungian, esaterako, motoen zarata kontrolatzeko ikastaro bat egin zen.*
- *Azkenik, disuasio-aparkalekuak eraikitzearen alde egin behar dela proposatu da, hirigunean trafikoak murrizteko.*
- *Beste kide batek esan du zarata gutxitzeko konponbideetan eragin handia duela inguruak, eta borren arabera ekintza bat edo beste egin behar dela. Eremu batzuetan esaterako, pantaila akustikoak jar litezke. Beste batzuetan, berriz, hesi naturalak dira eraginkorrenak, heskaia landatzea, esaterako.*
- *Pertsona batek galdetu du aurkezturiko Zaraten Mapan AHTk Durangotik igarotzean sortzen duen inpaktu akustikoa gehitu den. Ezetz erantzun diote. AHTren soinu-inpaktua eta*

neurri zuzentzaileak Ingurumen Inpaktuaren Azterketan jasotzen dira, eta bain zuzen Ingurumen Ministerioak du horretarako aginpidea. Udalaren web orrian dago eskuragarri.

- Ondoren, TA21eko teknikariak esan du irailean Europa osoan ospatzen den Mugikortasun Aestetik aurrera, esperientzia aitzindari bat egingo dela: Zumalakarregi kalea itxi egingo da trafikorako, eta horri esker, motordun ibilgailuak igarotzen diren eremu bat eta halako ibilgailurik ez dabilen beste eremu bat konparatu abal izango dira, eta horrekin batera eremu Zumalakarregi inguruan bizi-kalitatea hobetu egingo da.

PARTE HARTUKO DUTEN ERAGILEAK

Udala

DENBORA: 4 urte.

Sinergiak. Beste ekintza edo proiektu batzuekin harremana.

Finantzabideak.

PROPOSATURIKO ADIERAZLEA:

Adierazlea: eremu eta kale batzuetako zarata maila.

Datuen iturburua: udala

Adierazlea: motoen salaketak

Datuen iturburua: udala

Neurketa unitatea: dB(A)

Lortu nahi den joera: murriztea.

Lortu nahi den joera: murriztea.

1.4. Ekintza-plana

Deskribapena: **jaiek eta kultura-ekintzek kalean eragindako zarata**

EGINGO DIREN EKINTZAK

- Erakundearen jaien egutegi koherentea egitea, bide publikoan egiten diren jai pribatuen aurka eginez, auzokoentzat kaltegarriak baldin badira.
- Politikariak eta herritarrak sentsibilizatzeko, jai jasangarriei buruzko jardunaldiak egitea.
- Erakundearen jaietan zarata sortzen duten tresnak murriztea, eta ordutegi logikoan jardutea (amaitzeko ordutegia eta baimendutako dB mailak kontrolatzea), inguruko auzokoek deskantsatzeko arazorik izan ez dezaten.
- Dezibel maila jaiko kideen kopurura egokitzea, jende gutxi dagoenean musika topera egon ez dadin.
- Jaietan dantzaldietako lekuak aldatzea, beti auzokide berberei ez eragiteko.
- Ahal denean, ekitaldi publikoak hirigunetik kanpo egitea.

FOROKO OHARRAK:

- *Europako beste herrialde batzuetan ez bezala (nordikoetan, esaterako), gure gizartean zarataren kultura errotuta dagoela ere aipatu da. Ildo borretan, pentsaera aldatu behar da, eta egungo zarata mailekin kanpaina egin eta herritarrei zaratak dituen eraginak jakinaraztea proposatu da.*
- *Urkon eta beste zenbait terrazatan sortzen den zaratari buruz ere hitz egin da, zenbait ekitaldi eta ekintza berezi ongi kontrolatu behar direla aipatu da. Ia beti leku berean egiten dira gainera, eta horrek inguruko auzokideei egiten die kalte.*

PARTE HARTUKO DUTEN ERAGILEAK

Udala
Elkarteak

DENBORA: 3 urte.

Sinergiak. Beste ekintza edo proiektu batzuekin harremana.

Finantzabideak.

PROPOSATURIKO ADIERAZLEA:

Adierazlea:
Jai kopurua kontrolatzea

Datuen iturburua:
Udala

Neurketa-unitatea:
Urteko jai kopurua

Lortu nahi den joera:
Murriztea

1.5 Ekintza-plana

Deskribapena: **auzoko zaratak**

EGINGO DIREN EKINTZAK

- Eraikin berrietan Eraikuntzako Kode Teknikoa betetzen dela ziurtatzea, ENAC laborategien ziurtagiriaren bitartez.
- Auzokoentzako informazio-kanpainak egitea, zarataren ondorio kaltegarrien berri emateko.
- Haurrak kutsadura akustikoaren inguruan hezte, Eskolako Agenda 21en bitartez. (Ingurumenaren astean, fitxa didaktikoen bitartez, etab.)
- Zarata eta dardarei buruzko Udal Ordenantza bat egitea eta onartzea, eta kode tekniko berrira egokitzea.
- Zarata eta dardarei buruzko ordenantza egitea eta onartzea, eta zaborrak jasotzeari eta tratatzeari eta ordutegiari buruzko atal bat eranstea.
- Obrek eragindako zaraten eta ondorioen kontrola ikuskatzea eta, behar baldin bada, hobetzea, zarata gutxitzeko.
- Zarata eta dardarei buruzko ordenantza bat egitea eta onartzea, eta beira eta kartoi- edukiontziak jasotzeari eta tratatzeari eta ordutegiari buruzko atal argi bat eranstea.
- Udaleko industria-fabrika guztiei zaratei buruzko ordenantza betearaztea.

FOROKO OHARRAK:

- Zaborra biltzeko kamioiek sortzen duten zarata ere aipatu da. Zera hori mugatzeko ordenantzak badaude, baina ez dira betetzen.
- Obrek sortzen duten zarata ere aipatu da. Araudi bat badago baina oso malgua da, eta ildo horretan, obrak hobeto arautu behar direla aipatu da.
- Garbitzeko makinek eta birziklatzeko kontainerrak biltzen dituztenek goizean goiz sortzen duten zarata ere aipatu du batzordeko kide batek. Horretarako, enpresa arduradunekin ordutegiaren plangintza aztertzea proposatu da, herritarrei eragozpen gutxiago sortzeko.
- Durangoko Hirigune Historikoan, garbitzeko makinek zarata handia sortzen dute, gainera goizeko 05:30ean hasten dira lanean eta oso goiz da. Lana kalte gutxiago egiten duten beste eremu batzuetan hastea proposatu da. Ildo horretan, lana gauzatzen duen enpresari ordutegiaren plangintza aldatzeko eskatzea proposatu da.

Beste kide batek zenbait enpresak sortzen duten zarata eta horrek inguruko etxebizitzetan duen eragina aipatu du. Zehazki, Zumbarriko moldaketa Galdategia aipatu da. Arazo hau aipatu duen Foroko kideak esan du 1996an zenbait alegazio aurkeztu zirela Eusko Jaurlaritzan eta gobernuak zenbait neurketa egin zituela. Azterketa horietan oso zarata maila altuak jaso ziren, baina enpresak ez omen du ezer egin egoera aldatzeko. Arazoa are handiagoa da udan, beroa dela-eta atea irekitzen direlako eta ondorioz, zarata handiagoa delako inguruan. Auzokide honen iritziz, arazo hau ikaragarria da eta esku hartu behar da. TA21ko teknikariak, Aitor Larruzeak, adierazi du Durangoko Udalak berak zenbait alegazio aurkeztu dituela eta era berean, auzoko kideen salaketak, kexak eta alegazioak ere Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailera bidali dituela. Ondorioz, sail horri dagokiola enpresak bete beharreko neurri zuzentzaileak ezartzea.

PARTE HARTUKO DUTEN ERAGILEAK

Udala

DENBORA: 2 urte.

Sinergiak. Beste ekintza edo proiektu batzuekin harremana.

Finantzabideak.

PROPOSATURIKO ADIERAZLEA:

Adierazlea:
Auzokoen zarategatik jasotako salaketak
kontrolatzea

Datuen iturburua:
Udala

Neurketa-unitatea:
Urteko salaketa kopurua

Lortu nahi den joera:
Murriztea